

# ` ` Grabitazioak ` `

Eduardo Chillida

2021eko irailaren 25a - abenduaren 7a

CarrerasMugica

CarrerasMugicak atsegin handiz aurkeztu nahi du Eduardo Chillidari eskainitako Grabitazioak izeneko erakusketa. Irailaren 25etik abenduaren 7ra bitartean, Chillidak 1985 eta 1995 artean egindako bederatzi lan izango dira ikusgai galeriaren estudioan.

Chillidaren arrakastaren giltza dira bere proposamenaren aberastasuna, kalitate plastikoa eta bere izaera etengabe berritzailea, zeinak beti ildo estetiko berriak bilatu eta aurkitzera bulkatzen baitu, koherentzia inoiz galdu gabe. Aberastasun hori, neurri handi batean, hainbat material erabiliz erronka berriei aurre egiteko duen ausardiaren ondorio da: igeltsua, alabastroa, burdina, altzairua, harria, hormigoia, egurra, marmola, terrakota, papera... Chillidaren lanean, materiala ez da euskarri hutsa, baizik eta eragile aktibo bat, artista elkarrizketan hasten da harekin, eta elkarrekin lan harrigarri berriak sortzen dituzte, oso bestelakoak beste euskarri batzuetan sortutakoekin erkatuta.

Erakusketa honek paper gainean egindako lana du ardatz, zehazki, artista 1985ean egiten hasitako grabitazioak. Inolako itsasgarririk erabili gabe, "collage" moduan gainjarritako hainbat paper dira, aldez aurretik artistak landuak, ebakinekin, tintarekin edo tintarik gabe, mutur batean hariz josiak, hortik zintzilik (grabitatzen) geratzeko eta beste muturretik aske, elementu bolumetriko eskultoriko bat sortuz.

Chillidaren beraren hitzetan: *"Ustekabean sortu da. Egun batean lanean ari nintzen, beste edozein egunetan bezala. Niri sekula ez zait gustatu itsasgarria. Paperak itsastea ez zitzaidan oso ondo iruditzen, baina inoiz ez zitzaidan bururatu modu askotan konpon zitekeenik. Bat-batean zera pentsatu nuen: "Bi paper hauek itsasgarriarekin lotu beharrean, zergatik ez lotu nolabait, sokarekin edo beste zerbaitekin josiz?" Buruan horri bueltaka hasi nintzen, probak egin nituen, eta, jakina, berehala. Gainera, ohartu nintzen zer-nolako ondorioak zituen. Lehen itsasgarria zegoen lekuan, espazioa sartzen zenuen. Ez dago itsasgarria eta espazioa konparatzerik! Erokeria da. Izugarri irabazten da".*

*Eduardo Chillida (Donostia, 1924-2002) XX. mendearen bigarren erdialdeko espainiar artistarik ospetsuenetako bat da nazioartean, eta, zalantzarik gabe, garai horretako eskultorerik ezagunena. Bere lanak gure herrialdeko mugak gainditu ditu eta museorik garrantzitsuenen bildumetan dago. Bere ibilbidean zehar, mundu osoko galeria eta museorik garrantzitsuetan egin ditu erakusketak.*

*Erakusketa hau Madrilgo Guillermo de Osmá Galeriarekin eta Chillida Leku Fundazioarekin elkarlanean antolatu da. Erakusketa dela-eta, katalogo bat argitaratuko da lan guztiak erreproduzitzeko.*




Ikuspegi orokorra





*Titulo gabe (1989.020), 1989*  
Tinta, soka eta eskuz egindako papera.  
161 x 121 cm.




Ikuspegi orokorra



*Titulo gabe (Gravitación)*, 1988. Tinta collage paperaren gainean eta soka. 56,5 x 61,6 cm.






*Titulo gabe*, 1995  
Papera, tinta eta soka.  
20,2 x 15 cm.




*Titulo gabe (Gravitación)*, 1989. Soka, tinta eta eskuz egindako katalan papera. 62,5 x 103 cm.








*Gravitación*, 1992. Papera, tinta eta soka. 27 x 40 cm.




*Titulo gabe (CH-86/GT-22)*, 1986. Papera, tinta eta soka. 21,6 x 29,2 cm.




*Gravitación*, 1992. Papera, tinta eta soka. 27 x 40 cm.

*Titulo gabe (CH-86/GT-22)*, 1986. Papera, tinta eta soka. 21,6 x 29,2 cm.







*Gravitación (zuria)*, 1985/86. Papera eta soka. 30 x 40 cm.



*Gravitación (zuria)*, 1985/86.  
Papera eta soka.  
30 x 40 cm.









*Gravitación*, 1994. Papera, tinta eta soka. 28,5 x 34,1 cm.

*Gravitación*, 1994.  
Papera, tinta eta soka.  
28,5 x 34,1 cm.





*Gravitación (1987.027), 1987*  
Papera, tinta eta soka.  
34,5 x 24,5 cm.





Ikuspegi orokorra



# CarrerasMugica

[www.carrerasmugica.com](http://www.carrerasmugica.com)

[info@carrerasmugica.com](mailto:info@carrerasmugica.com)

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO  
T. +34 944234725